

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2418

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 15ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarriak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak (hemendik aurrera, «4/2019 Legea») energia-jasangarritasunaren arau-zutabeak ezartzen ditu administrazio publikoen eremuan, energia-efizientzia bultzatzean, energia aurreztean eta energia berriztagarrien sustapen eta inplementazioan oinarrituta.

Ilido horretan, 2030erako (3E2030) Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan gauzatu-tako Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz, energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruagoa lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu, kontsumorako edo produkzi-rako energia gutxiago behar, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko baita.

Horrenbestez, aurrezpena eta energia-efizientzia, eta horrekin batera Euskal Autonomia Erkidegoan dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia berriztagarrien erabilera jomuga duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko lehentasunezko helburuarekin diseinatu da laguntzen programa hau.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren ez aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarriak eta dagokion deialdia onartzea, programaren edukia ebazpen honi eranskin gisa eranstean zaiolarik.

Bigarrena.— Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.3 artikuluari jarraikiz, Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntzen programaren oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2025eko maiatzaren 15a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.



ERANSKINA

EUSKADIKO TOKI-ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ENERGIA-
JASANGARRITASUNA HOBETZEKO AZTERLANAK ETA AUDITORIAK EGITEKO
LAGUNTZA-PROGRAMAREN OINARRIAK

Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza-programa

1. Programaren xedea, laguntzen deskribapena eta izaera.

- 1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak (hemendik aurrera, «**4/2019 Legea**») energia-jasangarritasunaren oinarrizko arauak ezartzen ditu administrazio publikoen eremuan, energia-efizientzia bultzatzean, energia aurreztean eta energia berriztagarrien sustapen eta inplementazioan oinarrituta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuak (hemendik aurrera, «**254/2020 Dekretua**») otsailaren 21eko 4/2019 Legearen zenbait alderdi garatzen ditu, arau horretan aurreikusitako betebeharren irismena argitzeko eta betebeharrak horiek betetzen laguntzeko, epeak eta izapideak zehazteko, zehaztu gabeko kontzeptu juridikoak argitzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen osaera eta funtzionamendua arautzeko.

Era berean, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legeak (hemendik aurrera, «**1/2024 Legea**»), Europako zein Espainiako legediak xedatutakoaren esparruan, Euskadin klima-neutraltasuna beranduezt 2050ean lortzeko esparru juridiko egonkorra ezartzea du xede. Jarduera sozio-produktiboa deskarbonizatzearen bidez, ekonomia zirkular baterako trantsizioaren bidez eta klima-alaketarako egokitzapenaren bidez lortuko dira helburu horiek,aldi berean enplegu duina sortuko duen eta desparekotasunak murriztuko dituen garapen-eredu bat ezartzea bilatuko dela. Halaber da lege honen helburua lurraldeak klima-alaketarekiko duen erresilientzia handitzea eta trantsizio energetikoak eskaintzen dituen aukera sozial, enpresarial eta ekonomikoak aprobetxatzea.

Ildo berean, Eusko Jaurlaritzaren energia-politikaren helburuei jarraikiz (2030erako Euskadiko Energia Estrategia (3E2030) dokumentuan gauzatuak), energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzea da Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren misioa, behar den bultzada publikoaren bidez, eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruagoa lortzea, ingurumen- inpaktua gutxitu, kontsumorako edo produkzioarako energia gutxiago behar eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko baita.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera, «**EAE**») lurraldean dauden instalazio eta eraikin publikoetan energia aurrezte eta efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekintzak identifikatu eta sustatzeko, eman da argitara Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egiteko laguntza-programa hau (hemendik aurrera, «**laguntza-programa**»).

- 1.2 Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (hemendik aurrera, «**DLO**») 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (hemendik aurrera, «**20/2023 Legea**») 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak (hemendik aurrera, «**EEE**») 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran 2025-2028 erabaki zen, besteak beste, 2025-2028 urteetarako EEEren Dirulaguntza Plan Estrategikoa onartzea, non laguntza-programa hau biltzen baita.

Zentzu honetan, 250 proiektu inguru laguntzera iritsi nahi da, eta subentzionatutako proiektu energetikoetan 7,2 milioi euroko inbertsioak egin.

EEEren 2025erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

- 1.3. Laguntza-programa honen barruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.4. Laguntza-programa hau zein berau aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu beraren 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

Dirulaguntza-programa honetan aurreikusten diren dirulaguntzak, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (UE) 2023/2831 Erregelamenduen barruan daude, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, *de minimis* laguntzez diharduena, (hemendik aurrera, «**2023/2831**

Erregelamendua») eta, Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (UE) 2023/2832 Erregelamenduaren barruan ere, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioaren ondorioz, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei ematen zaizkien *de minimis* laguntzez diharduena (hemendik aurrera, «**2023/2832 Erregelamendua**»).

1.5. Laguntza-programa honi dagokionez eta 2023/2831 Erregelamenduan araututakoari jarraikiz:

- ☐ Enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein entitate, bere izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein delarik ere.
- ☐ Enpresa bakartzat ulertzen da elkarren artean gutxienez lotura hauetako bat duten enpresa guztiak:
 - a) Enpresa batek, beste enpresa baten akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak dauzka;
 - b) Enpresa batek beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko eskubidea dauka;
 - c) Enpresa batek beste bat mendeen hartzeko eskubidea dauka, harekin egindako kontratu bati edo bere estatutuetan edo bere eraketa-eskrituran dagoen xedapen baten klausula bati jarraikiz;
 - d) Enpresa batek, beste baten akzioduna izanik edo beste bati elkartuta egonik, bakarka kontrolatzen du, bigarren enpresaren akziodun edo bazkideekin egindako akordio bati jarraikiz, haren akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak.

Beste enpresa baten edo batzuen bitartez a) letratik d) letrara bitartean barne hartzen diren harremanetako edozein daukatenak ere hartuko dira enpresa bakartzat.

2. Onuradunak.

2.1. Laguntza-programa honen xede diren dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute:

- a. Kontzejuek, ermandadeek, administrazio-batzarrek eta eremu txikiagoko bestelako lurraldeko toki-erakundeek.
- b. Udalerriek.
- c. Udalerri-mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak eta bestelako toki-erakundeak, toki-araubideko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoarekin bat.
- d. Toki-erakunde horiei lotutako edo haien mendeko erakunde publikoak.
- e. Udal-enpresa publikoak, baldin eta atal honetan aurreikusitako erakundeek horien kapital sozialean duten zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza ehuneko 50etik gorakoa bada.
- f. Fundazioak, baldin eta fundazioaren patronoa toki-erakunde bat bada, edo haren patronatua, nagusiki, toki-erakundeko ordezkariez osatuta badago.
- g. Partzuergoak eta mota guztietako gainerako erakunde instrumentalak, baldin eta nagusiki toki-kapital publikoaren partaidetza badute edo haien posizio nagusia toki-erakunde batena bada.

2.2. Hauek ezin izango dira onuradun izan.

- (i) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduko (hemendik aurrera, «**DLO**») 21. artikuluan edo 20/2023 Legearen 14.f) artikuluan aurreikusitako kondizioetako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, azken onuradunak, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharririk ez duela, edo, hala badagokio, horiek bete dituela egiaztatzeko, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa) 4., 5. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

- (ii) DLOaren 13.2 eta 13.3 artikuluetan eta 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 aurreikusitako kondizioetako batean daudenak.

Kondizio horiek betetzen direla akreditatzeko, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, 20/2023 Legearen 13.6tik 13.9ra artikuluan eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren Araudiko (hemendik aurrera, «DLO») 22 bis eta 23. artikuluetan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauak halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahalko dute eskatzaileek.

Horri dagokionez, EEEk zuzenean kontsultatuko du behar den informazioa administrazioen arteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, horretarako gaituta badaude eta prozedura izapidetzen ari den bitartean beharrezkoa bada inguruabar horiek aintzat hartzeko. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan berak aurkeztu beharko du dagokion justifikazio-dokumentazioa.

(iii) Horrez gain, eta onuradunak jarduera ekonomikoa garatzen baldin badu:

- a) DLOaren 13.3bis artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.
- b) EBk ezarritako zigorren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:
 - ☐ Zigor horiek agintzen dituzten egintza juridikoetan espezifikoki izendatutako pertsona, entitate edo erakundeei dagozkien zigorrak,
 - ☐ EBk hartutako zigorren xede diren pertsona, entitate edo erakundeen kontrolpean dauden edo horien jabetzakoak diren enpresei dagozkien zigorrak, edo,
 - ☐ EBk hartutako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboei dagozkien zigorrak, laguntzak dagozkien zigorren helburuen kalterako diren neurrian.
- c) 2023/2831 Erregelamenduaren eta 2023/2832 Erregelamenduaren 1. artikuluan adierazitako sektore batean edo batzuetan diharduten entitateak.
- d) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden entitateak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituak dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- e) Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozgarrietako batean erori direnak.

3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea

- 3.1 2025-2028 aldirako EEEren aurrekontuetan horretarako xedatutako kredituaren arabera, laguntza-programa honetarako bideratutako diru-zuzkidura bost milioi eurokoa da (**5.000.000 euro**; Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024ko Legeak onartua, 2024ko abenduaren 30eko 252. zenbakiko EHAA).

Programaren aurrekontua % 20 handitu ahal izango da, salbuespen gisa, eskariaren eta dirulaguntzako jarduketaren garapenaren arabera, baldin eta helburu horretarako aurrekontu erabilgarri nahikorik badago, eta betiere haren indarraldia ez bada iraungi.

3.2 Laguntza-programa honetako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2025eko ekainaren 30an, 08:00etan hasiko da, eta Laguntza Programan horretarako bideratutako aurrekontua agortzen den unean amaituko da.

Nolanahi ere, aurrekontu erabilgarriak egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea **2028ko urriaren 17an**, asteartez, amaituko da, deialdian aurrekontu erabilgarri nahikoa izanik ere. Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez da eskaera gehiagorik onartuko.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da EEEko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (hemendik aurrera, «EHAA») zein EEEn Interneteko helbidean: www.eve.eus

3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (hemendik aurrera, «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

3.4 Jada aurkeztuta dauden eskaerak –ongi egindakoak eta osoak izanik eta tramitazio-fasean egonik– esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortu delako ezin badira erantzun, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, EEEko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa.

4.1 I. eranskinean zerrendatutakoak izango dira jarduketa subentzionagarriak, betiere eskatzaileek EAEko lurraldean burututakoak badira eta Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasuna hobetzeko azterlanak eta auditoriak egitea helburu badute.

- a. Kanpo-argiteria publikoaren energia-auditoriak.
- b. Energia-eraikin eta energia-instalazioen energia-auditoriak.
- c. 5.000 biztanletik beherako udalerri eta beste toki-entitateentzako energia-eraginkortasuneko planak.
- d. 5.000 biztanletik beherako udalerri eta beste toki-entitateentzako mugikortasun jasangarriko planak.
- e. Bideragarritasun-azterlanak eta energia-jasangarritasuneko proiektuak lantzea.

4.2 I. eranskinean barne hartuta dago kostu subentzionagarria eta onuradunek jaso beharreko laguntzen zenbatekoa zenbat izango den.

4.3 Programa hau argitaratu aurretik egindako jarduketak onartuko dira, baldin eta 2024ko abenduaren 31 baino geroago hasi badira, hau da, kontratistarekin sinatutako kontratua egun horretakoa edo geroagokoa bada; eta jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela egiaztatzen bada hamabi (12) hilabeteko epean gehienez, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita, eta, nolanahi ere, 2028ko abenduaren 31n beranduenez.

4.4 Horregatik eskatuko da jarduketa subentzionagarriaren egikaritzeari dagozkion kontratuen, fakturen eta ordainagirien datak 2025ko urtarilaren 1eko edo ondorengoak izatea.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak.

5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken hartzaile bakoitzeko.

I. eranskineko D puntuan adierazitakoari jarraikiz.

Era berean, 2023/2831 Erregelamenduari jarraikiz eskatzaileak enpresatzat hartzen badira, aldeztu aurretik adierazitako idatz-zatietan aurreikusitako izaera orokorreko mugez gain, arau hauek finkatutako dirulaguntza-mugak ere izango dira aplikagarriak:

- a) 2023/2831 Erregelamendua.
- b) 2023/2832 Erregelamendua.

Horrela, beraz, enpresatzat hartzen diren eskatzaileei ezarritako mugak bat etorriko dira 2023/2831 Erregelamenduaren eta 2023/2832 Erregelamenduaren 3.2 artikuluetan adierazitakoarekin:

- Enpresa bakar bati emandako *de minimis* laguntzen kopuruak ez du gaindituko 300.000 euroko kopurua hiru urteko edozein alditan.
- Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituen enpresa bakar bati emandako *de minimis* laguntzen kopuru osoak, betiere 2023/2832 Erregelamenduan ezarritako eskakizunak betetzen baldin baditu, ez du gaindituko 750.000 euroko kopurua hiru urteko edozein alditan. Zentzu horretan, eskatzaileak, 2023/2832 Erregelamendura bildu ahal izateko, interes ekonomiko orokorreko zerbitzuaren emakida enkargatuta edo esleituta eduki beharko du, laguntza-eskaera erregistratu baino lehen, eta 2011ko abenduaren 20ko Batzordearen (2012/21/EB) Erabakiaren 4. artikuluan bildutako baldintzetan. Erabakiak hau jasotzen du: interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen kudeaketaz arduratzen diren enpresa batzuei emandako zerbitzu publikoagatiko konpentsazio moduko estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 106. artikulua 2. apartatuko xedapenen aplikazioa.

5.2. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

5.2.1. Laguntza-programa honen esparruan emandako laguntzak helburu bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza ororekin **bateragarriak** izango dira, edozein administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatuk emanak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak direla ere, baldintza eta portzentaje hauen pean:

- a. 2023/2831 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen ez diren onuradunentzat, kostu subentzionagarriaren % 80ra bitarte.
- b. 2023/2831 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen diren onuradunenentzat, kostu subentzionagarriaren % 50era bitarte. % 50eko portzentajea murriztu ahal izango da 2023/2831 Erregelamenduan eta 2023/2832 Erregelamenduan aurreikusitako metaketa-arauak aplikatuz.

5.2.2. Edonola ere, gainfinantzazioa saihestearren eta DLOaren 19. artikulua eta 20/2023 Legearen 16. artikulua aplikatuz emandako laguntzen kopuruak ezein kasutan ezin izango du, berak bakarrik nahiz beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

5.2.3. Beste erakunde batzuetatik datozen laguntzak EEEn dirulaguntza emateko ebazpenaren ondoren gauzatzen badira, EEEn jakinarazi beharko dio onuradunak, eta laguntza-multzoaren azterketatik ondorioztatzen bada aurrerakin itzulgarriaren zenbatekoa murriztu beharra, laguntza guztiz edo partzialki atzera botatzeko ebazpenaren bitartez eta dagokion ordainketaren aurretik jakinaraziko da.

5.3. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea.

a) DLOaren 29. artikuluan, DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Onuradunak diruz lagundutako jardueraren bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, aipatutako DLOaren 29. artikulua, DEOaren 68. artikulua eta 20/2023 Legearen 31. artikulua horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betetz, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000, BEZik gabe, obretarako), laguntzaren onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkezten diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da; halaber, ez baldin bada ekonomikoki onuragarriena den proposamena aukeratzeko, aukeraketa espreski justifikatuta geratu beharko da.

6. Tramitatzeakudeaketa eta prozedura.

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera (hemendik aurrera, «91/2023 Dekretua»), laguntza-programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikokoaren egoitza elektronikokoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>) eta Eusko Jaurlaritzaren Tramitagune tramitazio elektronikoko aplikazioa erabiliz, euskadi.eus webgunean eta EEEren webgunean (www.eve.eus) erabilgarri dagoena.

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, tramitazioarako jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta horren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus> eta www.eve.eus

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen tramite edo dokumentu bat elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoko aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuaren 71. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikoko bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>

Kanal elektronikokoan, eskaeraren ondorengo tramiteak, jakinarazpen eta justifikazioak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

Eskaera ez bada osatua, akatsik gabea edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe badator, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari hura zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebaizpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikulukoaren arabera.

Eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, entitate interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikokoan aurkezteko. Horri dagokionez, aurkezpene bide hori erabiliz gauzatzen den eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia.

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, 6. oinarrian aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, 3. oinarrian adierazten den epearen barruan.

Laguntza-programa indarrean dagoen bitartean, eskatzaileek behar adina laguntza-eskaera formalizatu ahal izango dituzte, egoki irizten dieten irismenarekin. Horrenbestez, laguntzak eskatu ahal izango dira, bai 4. oinarrian jasotako jarduketa guztietarako, bai jarduketa bakar baterako.

Hautatzeko aldiari dagokionez, eskaerak onartzeko eta programaren 4.1 oinarrian ezarritakoa bete dela egiaztatzeko, **2025eko urtarilaren 1ekoak** edo geroagokoak izan behar dute laguntzaren xede diren instalazioak gauzatzeari dagozkion kontratuek, fakturek eta ordainagiriekin.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebaizteko ordenari dagokionez 8.1 oinarriaren lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte.

Laguntza-eskaerekin batera, oinarri hauen II. eranskinean aipatutako dokumentazio guztia aurkeztuko da, diruz lagundu nahi zaion jarduketa-motaren arabera. Nolanahi ere, EEEk entitate eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea.

8.1. Laguntza-eskaeren ebazpenak elkarren segidan emango dira, egoera edo jarduketa subentzionagarria badela eta eskatutako beste betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrenbestez, aurkeztu diren hurrenkera zehatzaren arabera aztertuko eta tramitatuko dira eskaerak.

8.2. EEEko Berrikuntza eta Garapen Zuzendaritzaren barruko Laguntza Arloak izango du espedienteak antolatzeke eta kudeatzeko eskumena.

EEEko Zuzendaritza Nagusiak, berriz, ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko epean gehienez ere, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada berariazko ebazpenik eman, interesatuek ezetsitatz hartu ahal izango dute beren eskaera, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoari dagokionez; hala eta guztiz ere, EEEK egindako eskaeraren berariazko ebazpena emango du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Ebazpenean puntu hauek adieraziko dira berariaz, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren onuradunaren izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

8.3. Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileak hautazko birjartze-errekurtsoa jarri diezaioke EEE Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza Nagusiari hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (hemendik aurrera, «29/1998 Legea»).

8.4. Azkenik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (hemendik aurrera, «19/2013 Legea»), DEOaren 30. artikulua eta 20/2023 Legearen 15. artikulua diotenarekin bat etorritik, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean (KKB Kontrol Ekonomikoko Bulegoari helaraztearen bidez) argitaratuko ditu programa honen emango diren dirulaguntzak, eta legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

8.5. 20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, EEEK deialdi honetan aurreikusitako laguntzak onuradunei ordaintzea bertan behera uztea erabaki ahal izango du, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera baldintzapean geratuko delarik, zeina, EAEko Administrazio Orokorrek, bere Erakunde Autonomoek eta sektore publikoko entitateek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasita egonik, oraindik ere izapidetze-aldian dagoen, etendura horrek ezein kasutan ez duelarik gaingidutako diru-itzulketa espedientearen hasierarako proposamenak edo ebazpenak finkatzen duten diru kopurua, berandutze-intereseekin.

9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea.

9.1. Laguntzaren onuradunek gehienez ere hamabi (12) hilabeteko epean justifikatu beharko dute EEEren aurrean laguntzaren xede den jarduketa egin izana, laguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita, eta, **betiere, ez 2029ko urtarrilaren 15a (astelehena) baino geroago**, hamabi hilabete baino gutxiago igaro badira data horren eta emakida-ebazpenaren jakinarazpenaren artean, elektronikoki, 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez.

9.2. Laguntzen entitate onuradunak oinarri hauen II. eranskinean aipatzen diren eta aplikagarriak diren agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, eta, zehazki, onuradun-motaren eta egin den jarduketaren arabera adierazita daudenak.

- 9.3.** Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa) 9.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-programa hau eskatzen duten erakundeek ez dute egiaztatu beharko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela.
- 9.4.** Laguntzaren onuradunak edo haren legezko ordezkariak aurkeztu beharko du dokumentazioa, behin jarduketa erabat bukatutakoan, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, justifikatzeko aurkeztu den dokumentazioa osatu gabe badago, akatsak baditu edo postaz nahiz aurrez aurre aurkeztu bada, laguntzaren onuradunari, zuzenketa eskatzeko idazki baten bidez, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko, laguntzaren entitate onuradunak zuzenketa-jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta (39/2015 Legearen 68. artikulua).
- 9.5.** EEEk ez du luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko eta jarduketa subentzionagarria egikaritzeko epea, eta justifikazioa ezarritako epean ez aurkezteak, berriz, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza atzera botatzea eta DLOan eta 20/2023 Legean ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

- 9.6.** Eskatutako dokumentazioa jasotakoan aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioari balorazio positiboa ematen bazaio, EEEk laguntza ordainduko du.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bat abiaraziko da.

Aitzitik, onuradunak 9. oinarri honetan edo oinarri hauetan edota dirulaguntzaren arloan ezarritako araudian aurreikusitako terminoetan adierazitako justifikazio-betebeharra beteko ez balu, EEEk laguntza guztiz edo zati batean atzera botatzeko espediente bat abiaraziko du, 12. oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraikiz eta, betiere, proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritik.

Laguntzaren bi errebokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da.

- 9.7.** Laguntzaren onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEk dirulaguntza, jarduketa subentzionagarria amaitu ondoren, eta lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen, eta laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gainerako baldintza eta betebeharrak bete direla jasotzen duen dokumentazioa egiaztatzeko aukera ere emango duen dokumentazioa EEEri aldezturik aurkeztuta.
- 9.8.** Ezin izango dute laguntzaren ordainketa jaso EAEko Administrazioa eta haren sektore publikoko entitateen batek nahiz EEEk berak emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldiaren edo bide betearaztekoan.

Onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak eginak dituztela onartzeko, hau izango da irizpidea: ez izatea dirulaguntzak ez itzultzeagatik zorrik betearazteko fasean EAEko sektore publikoko entitateekin, ez EEEekin, edo onuradunei premiamendu-bidea ezartzerik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldiaren halako zorrik ez izatea.

Era berean, erakunde onuradunak dirulaguntzak itzultzeko obligazioen ordainketan egunean daudela ulertuko da zorrik geroratuta eta bermatuta daudenean, zatikatuta daudenean edo itzulketa-ebazpena inpugnatu delako etetea erabaki denean (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren «Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa» 4. artikulua).

- 9.9.** EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala justifikatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria).

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako arauetara egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du, dirulaguntzen erabileraren fiskalizazio-funtzioak baliatuz.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta ondorioztatzen bada hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo onuradunari ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea, kasuan-kasuan, EEEk dirulaguntza partzialki edo erabat atzera botatzeko espedientea egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko dio, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Laguntzen onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan parte hatzen duten onuradunek, nolanahi ere, betebeharrak bete beharko dituzte:

- a. DLOaren 14. eta 46. artikuluetan eta 20/2023 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoak.
- b. Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
- c. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari (KEB), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari (HKEE), EEERI eta baita tokiko, estatuko edo Europar Batasuneko beste edozein kontrol-erakunderi (adierazgarri gisa, eta ez mugagarri, Europar Batasuna, Iruzuraren aurkako Europako Bulegoa, Europako Kontu Epaitegia eta Europako Fiskaltza) eta gai honetan eskumena duten erakundeei ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
- d. EEERI, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira. Jakinarazpen hori, haren berri jakin orduko egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioaren unea baino lehen edo unean bertan.
- e. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzaarekin, bai beste edozein izaerarekin.
- f. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketaren xede izan daitezkeela kontuan hartuta, eta gutxienez hamar (10) urtean zehar laguntzaren emakidaren datatik zenbatzen hasita, 2023/2831 eta 2023/2832 Erregelamenduek xedatzen dutenaren arabera.
- g. Kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko dute onuradunek laguntzaren helburu-jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- h. Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastu subentzionagarriak aplikagarri zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.
- i. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERI, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioren berri ere.
- j. Informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, onuradunak EEERen laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:
 - ☐ Paperean, webgune batean, app batean edo ikus-entzunezko euskarri batean egiten den ekintza orotan berariaz aipatuko da proiektuak dirulaguntza jaso duela laguntza-programaren barruan. EEERen logotipoa txertatu beharko da, EEERen webgunean egongo dena eskuragarri, formatu bektorialean eta bere azken bertsio eguneratuenean.

- Diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa EEEren eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak.

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko zaio EEEri, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. Tituluan horrekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe.

Onuradunak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu oinarri hauetan hori ezartzen den kasuetan, eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritakoetan, eta, dirulaguntzen alorrari dagokionez, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio. Eta helburua erabat betetzera nabarmen hurbildu delako dirulaguntza partzialki ordaindu behar denean, eta onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jarduketa nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean.

EEEko zuzendari nagusiak du errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularaztekoa.

13. Eskatzaileei informazioa emateko klausula.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) telefonoa: 94.403.56.00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	– Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. – Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren mesedetan egindako edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalorde publikoak burutzeko eginkizun bat betetzeko. – Informazioa gordetzea: eskaera aztertze epean eta aplikatzekoak zaizkion legeko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legeko epeetan.
Lagapenen onuradunak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEEri idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikaritu daitezkeen neurrian.
	Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEEri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEEri datu pertsonak behar bezala lagatzeko.	

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)
Ordezkapena gauzatzeko, ordezkaria bere ordezkatuaren datu pertsonaletan sartuko da eta haren datu pertsonalak tratatuko ditu erabateko konfidentziasunez eta bidezkoak diren segurtasun-neurriak aplikatuz, prozedura kudeatzeko soil-soilik eta beste edozertarako erabiltzeko aukera debekatuta. Hirugarrenei ere ez zaie jakinaraziko, ordezkatuaren esanbidezko baimena baldin badago salbu. Konpromiso horiek mugagabeak dira, eta beraz, ordezkapena amaiturik ere jarraitzen dute indarrean. Ordezkariak segurtasun-arrakalen bat hautematen badu EEErentzako datuen komunikazio-kanaletan, EEERi jakinarazi beharko dio berehala.

14. Azken xedapenak.

14.1. EEEren erabakiak izaera administratiboa du eta EEEk kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.

14.2. Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEk.

14.3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren onuradunaren aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEk eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren onuradunaren erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezerein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.

14.4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- ☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17 38/2003 Lege Orokorrean bildutako oinarritzko manuak.
- ☐ Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko manuak.
- ☐ Abenduaren 21eko 20/2023 Legea, dirulaguntzen araubidea erregulatzekoa.
- ☐ 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasun ekonomikoari buruzkoa.
- ☐ Batzordearen 2023/2831 Erregelamendua (EB), 2023ko abenduaren 13koa, *de minimis* laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.
- ☐ Batzordearen 2023/2832 (EB) Erregelamendua, 2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei emandako *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa.
- ☐ 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- ☐ 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- ☐ 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.
- ☐ 2023ko otsailaren 13ko agindua, Ogasuneko sailburuarena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.
- ☐ Aplikagarri izan litezkeen tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta/edo Europako gainerako araudi guztiak.

I. ERANSKINA

Jarduketa subentzionagarriak, kostu subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

A) Jarduketa subentzionagarriak.

Jarduketa hauek jaso dezakete laguntza-programa honen esparruan laguntza:

a. **Kanpoko argiteria publikoaz energia auditoriak.**

Kanpoko argiteria publikoei lotutako instalazioen energia eraginkortasun auditoriak, 4/2019 Legearen 13. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.

Auditoriaren irismenak informazio hau jasoko du (orientagarri gisa baino ez da aipatzen):

- Sarrera, helburua eta irismena.
- Aplikagarria zaion araudiaren laburpena eta erreferentziazko erakundeen gomendioak.
- Instalazioen deskribapena.
 - ☐ Kokapen-planoak.
 - ☐ Argien eta ekipoen identifikazioa.
 - ☐ Argien mailen ebaluazioa.
 - ☐ Kontrol eta erregulazio sistemen deskribapena.
 - ☐ REBT-en eta REEIAE-ren betetzearen ebaluazioa.
- Energia elektrikoaren fakturaren azterketa (tarifa-egitura, kontsumoak eta kostuak).
- Argiteria hobetzeko proposamenak eta horien ebaluazio tekniko-ekonomikoa.
 - ☐ Proposatutako aldaketen deskribapena.
 - ☐ Lortutako energia eta diru aurrezpena.
 - ☐ Egiteko inbertsioaren aurrekontua eta aurreikusten den inbertsioa berreskuratzeko aldia.
- Proposamenak lehenestea, irizpide teknikoen eta ekonomikoen arabera. Sintesia eta ondorioak.

b. **Eraikinen eta energia instalazioen energia auditoriak.**

Herri administrazioaren jabetzako eraikin baten edo batzuen energia auditoriak egitea, 4/2019 Legearen 13. artikulua eskatzen duena betetzeko xedez.

Auditoriaren irismenak informazio hau jasoko du (orientagarri gisa baino ez da aipatzen):

- Auditorian aurreikusten den eraikin bakoitzaren hasierako egoeraren azterketa, horren barruan sartuko da eraikinaren erabilerak ere.
 - ☐ Bilgarri termikoaren deskribapena.
 - ☐ Berokuntza- eta hozte-sistemen deskribapena.
 - ☐ Argiztapen-sistemen deskribapena.
 - ☐ Sistema bakoitzeko ekipa nagusien zerrenda.
- Auditorian aurreikusten den eraikin edo instalazio bakoitzaren energia kontsumoa. Gainera, honako informazio hau ere emango da:
 - ☐ Erabiltzen den energia mota bakoitzaren energia-kontsumoa.
 - ☐ Urtebeteko hileroko kontsumoaren kurba, energia motaren.
 - ☐ Orduko elektrizitate-kontsumoaren kurba, gutxienez astebetekoa.
 - ☐ Erabiltzen den energia mota bakoitzaren energia-faktura.
 - ☐ Elektrizitate-fakturaren azterketa.
 - ☐ Energia-kontsumoen banaketa, deskribatutako energia-ekipamendu motaren arabera.

- Eraikinaren energia-jasangarritasuna hobetzeko jarduerarako proposamenak, proposatzen den jarduera bakoitzean haxe zehaztu beharko da:
 - ☐ Haren deskribapena.
 - ☐ Lortutako energia eta diru aurrezpena.
 - ☐ Energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamendua.
 - ☐ Egiteko inbertsioaren aurrekontua.
- Sintesia eta ondorioak.

Energia auditoriekin batera, eraikinen energia ziurtapenak egiteko aukera ere izango da. Ziurtapena 390/2021 Errege Dekretuak xedatutako irizpideen arabera egingo da.

c. 5.000 biztanletik beherako udalerri eta beste toki-entitateentzako energia-eraginkortasuneko planak.

5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerri eta beste toki-erakunde batzuetan, toki-administrazioen jabetzako eraikin, instalazio eta ibilgailuetan energia-eraginkortasuneko planak egitea, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko eta behar diren hobekuntza-neurriak proposatzeko, 1/2024 Legean, 4/2019 Legean eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako aurrezteko, emisioak murrizteko eta iturri berriztagarriko sistemak ezartzeko helburuak lortzeko.

Energia-eraginkortasuneko plana irizpide hauen arabera landuko da (orientagarri gisa aipatuak):

- Irismena, gutxienez, 2050. urtera arte iritsiko da, eta 2030erako ezarritako konpromisoak betetzeko behar diren hobekuntza-neurriak ere adieraziko dira.
- Egungo egoeraren diagnostikoak gutxienez puntu hauek edukiko ditu:
 - ☐ Tokiko administrazioaren jabetzako eraikin, instalazio, argiteria publiko, eta ibilgailuak bilduko ditu, bai eta bakoitzaren energia-kontsumoa eta energia-kalifikazioa ere.
 - ☐ Kokapena.
 - ☐ Eraikin, instalazio edo argiteria publikoko linea bakoitzari lotutako kontsumo-puntuen (CUPS) identifikazioa.
 - ☐ Ibilgailuen zerrenda: matrikula, marka, modeloa, erabilitako erregaia, kilometrajea...
 - ☐ Urteko energia-kontsumoen identifikazioa, bai oinarri-urterako, bai inbentarioa egin aurreko urterako.
 - ☐ Eraikinak,
 - ☐ Instalazioak,
 - ☐ Argiteria publikoa, eta
 - ☐ Ibilgailuen flotak.
 - ☐ Helburuak kalkulatzeko, 1/2024 Legearen 1. artikuluan jasotakoak hartuko dira oinarri-urte gisa. Halakorik ezean, 2015. urtea edo beste urte bat hartuko da oinarri-urtetzat, behar bezala justifikatuta eta orain arte egindako jarduketari balioa emateko.
 - ☐ Hobekuntza-proposamenen, inbertsioen, aurrezpen energetiko eta ekonomikoen eta inbertsioen itzultze-aldien laburpena, egindako auditorien emaitzen arabera.
 - ☐ Monitorizazioa eta energia-kudeaketa;
 - ☐ Bero-sorgailuak eta hotz-sorgailuak (klimatizazioa); erregai-aldaketak;
 - ☐ Energia berriztagarriak erabiltzea (fotovoltaikoa, biomasa, eguzki-energia termikoa, bero-ponpak geotermia edo geotermia erabiliz, eolikoa);
 - ☐ Bilgarri termikoak;

- ☐ Argiztapena;
- ☐ Energia-intereseko beste neurri batzuk.

2030erako eta 2050erako helburu orokorrak: energia-kontsumo globala murriztea, energia berriztagarriak ezartzea eta berotegi-efektuko gasak murriztea.

- ☐ Monitorizazio edo energia-kudeaketako Planak.
- ☐ Energia-efizientziako eta energia berriztagarriak ezartzeko, eta mugikortasuneko aurreikusitako neurriak:
 - ☐ Egutegia.
 - ☐ Aurreikusitako inbertsioak.
 - ☐ Lortutako aurrezpen energetiko eta ekonomikoa.

d. 5.000 biztanletik beherako udalerri eta beste toki-entitateetako mugikortasun jasangarriko planak.

Mugikortasun jasangarriko planaren helburua da aldaketa bultzatzea energia gutxien kontsumitzen duten garraiobideak erabil daitezen, eta 1/2024 Legearen 31. artikulua eskatzen duena betetzeko egin beharko da.

5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerri edo toki-erakundeetako mugikortasun jasangarriko planak soilik dira subentzionagarriak.

Hau izango da mugikortasun-planaren gutxieneko edukia:

- Abiapuntuko egoeraren diagnostikoa eta mugikortasun-aldagaien aurreikus daitekeen proiektzioa, gutxienez alderdi hauek eduki beharko dituelarik:
 - ☐ Aparkalekuaren kudeaketa.
 - ☐ Garraio publikoaren eskaintza.
 - ☐ Bide-sare nagusiaren antolamendua.
 - ☐ Mugikortasunaren modu-banaketa.
 - ☐ Mugikortasunerako inguruneak edo oztopoak.
 - ☐ Jarduketagune handietarako garraioaren kudeaketa.
 - ☐ Mugikortasunaren kudeaketa, jarduketaguneei dagozkien alderdietan.
 - ☐ Salgaien banaketa hiri-ingurunean.
 - ☐ Publikoarentzako eskuragarri dauden erregai alternatiboen birkargaguneen eta harguneen eskuragarritasuna.
 - ☐ Bizikleten mailegurako sistema publikoen eskuragarritasuna (udal bizisharing).
- Helburu orokorrak definitzea, hainbat alderdi kontuan hartuta: mugikortasun eraginkorra, bai energiari dagokionez, bai mugikortasunerako oztopoak kentzeari dagokionez, auzo guztiak garraio kolektiboko sareetara iristea, hiriguneak oinezkoentzat bihurtzea eta trafikoarekiko zaurgarriak diren kolektiboen aisialdirako espazio seguruak sortzea.
- Helburu espezifikoak definitzea. Helburu horiek, planaren helburu orokorrekin bat etortzeaz gain, kuantifikagarriak eta neurgarriak izan beharko dute, eta denbora-eremu zehatza izango dute. Helburu espezifiko bakoitzak adierazle bat izango du lotuta, eta, haren abiapuntuko datuaren bidez, ziurtasunez jakin ahal izango da zenbateraino bete den helburu hori.
- Ekintza Plana. Zehaztutako helburu espezifikoak betetzeko gauzatu beharreko ekintzak edo proiektuak deskribatuko dira, haiek egiteko epeak eta haien jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspena egiteko prozedurak zehaztuta.

Ekintzak honako eremu hauetan bilduko dira:

- ☐ Hiriguneetako sarbideak eta aparkalekuak arautzea eta kontrolatzea, eta garraio pribatua pixkanaka murrizteko beste neurri batzuk hartzea.
- ☐ Udalaren eskumenekoak diren garraiobide publikoen eskaintza eta garraio-azpiegituren ustiapena garatzea eta hobetzea.
- ☐ Garraio publikoko sistemak eta haien intermodalitatea instituzioetan, tarifetan eta fisikoki integratzeko neurriak garatzea.
- ☐ Disuasio-aparkalekuak sustatzea hiriguneen kanpoaldeko geltokietan edo geralekuetan edo metropoli-eremuan.
- ☐ Erregai alternatiboen sustapena publikoarentzako eskuragarriak diren birkargagune eta harguneen bidez.
- ☐ Bide-sare nagusiaren antolamendua eta ustiapena, garraiobide desberdinei dagokienez.
- ☐ Mugikortasuna sustatzea oinez eta bizikletaz, espazioak eraikiz edo erreserbatuz eta oztopo arkitektonikoak kenduz, oinezkoek eta bizikletek ingurune egokia, segurua eta atsegina izan dezaten.
- ☐ Elkarbanatutako erabilerako ibilgailuen sustapena.
- ☐ Mugikortasunaren kudeaketa, dagoeneko badauden edo aurreikusitako jarduketaguneei dagozkien alderdietan.
- ☐ Salgaien hiriguneko karga, deskarga eta banaketaren erregulazioa.

– Ondorioak.

e. Bideragarritasun-azterlanak eta energia-jasangarritasuneko proiektuak lantzea.

Bideragarritasun-azterlanak, aurreproiektuak edo ekipoen, instalazioen edo sistemen proiektuak egitea, onuradunei laguntzeko 1/2024 Legean eta 4/2019 Legean eta 254/2020 Dekretuan zehaztutako helburuak betetzen. Egindako azterlanaren motaren arabera izango da irismena, orientabide gisa honako hau izango delarik:

- Egungo egoeraren diagnostikoa;
- Alternatiba guztien azterketa eta hautaketa justifikatua;
- Hautatutako alternatibaren definizioa, honako hauek adieraziz:
 - ☐ Instalazioen ezaugarri teknikoak, diagramak eta espezifikazioak barne hartuz,
 - ☐ Eskuragarri dauden espazioekiko egokitzapena, planoak barne hartuz.
 - ☐ Inbertsioak eta ustiapen-gastuak.
 - ☐ Errentagarritasunaren analisia.
 - ☐ Ingurumen-azterlanak, beharrezkoak izango balira.
 - ☐ Segurtasun- eta higiene-azterlanak, beharrezkoa balitz.
 - ☐ Prestakuntza-premiak.
 - ☐ Betearazpen-kronograma orientagarria.

– Ondorio eta gomendioak.

B) Kostu subentzionagarria.

I. ERANSKIN honetan aurreikusitakoaz gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluan, eta 20/2023 Legearen 30. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 83. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

Kostu subentzionagarria mugatzea

Diruz lagundu daitezkeen jardueren barruan, jarduera horiek behar bezala egiteko beharrezkoak diren lanen kostuak izango dira diruz lagundu daitezkeen kostuak, besteak beste, informazioa biltzea, bisitak, neurketak eta kalkuluak egitea, bilerak eta dinamikak antolatzea eta dokumentuak idaztea.

Gainera, kontuan hartuko da honako hau:

- ☐ Materialerako eta eskulanerako partida ekonomiko guztiak dirulaguntzaren xede den jarduketa-motari zuzenean egotz dakizkiokeenak izango dira.
- ☐ Zerga-kenkariak edo bestelako kargak barnean hartuz adieraziko dira kostu subentzionagarriak.

Ez dira kostu subentzionagarriak izango

- ☐ Jarduketaren ondoriozko finantza-gastuak.
- ☐ Langile propioen gastuak.
- ☐ Zerbitzariak, inprimagailuak, eta oro har, mota guztietako ekipamendu ofimatikoak.
- ☐ Eta, oro har, argi eta garbi zehaztuta ez dauden eta laguntza-programa honetako 4. oinarrian aurreikusitako helburuak lortzeko zuzenean identifikatu ezin daitezkeen kostu guztiak.

Azkenik, tributuak kostu subentzionagarritzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

C) Laguntzaren zenbatekoa.

Deskribatutako jarduketek honako laguntza hauek izango dituzte:

- ☐ Kostu subentzionagarriaren % 80ra bitarte 2023/2831 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen ez diren pertsona onuradunentzat.
- ☐ Kostu subentzionagarriaren % 50era bitarte 2023/2831 Erregelamenduari dagokionez enpresatzat hartzen diren pertsona onuradunentzat.

Jarduketa subentzionagarriaren kasu espezifikoan, bideragarritasun-azterlanak eta jasangarritasun energetikoko proiektuak egiteko, (I. eranskin honen A atalaren «c letra), gehienez ere 15.000 euro-ko dirulaguntza jaso ahal izango da azterlan bakoitzeko, eta kostu subentzionagarriaren % 50eko laguntza.

D) Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra

Onuradun bakoitzeko gehieneko laguntzak, eskaeren kopurua eta haien irismena edozein delarik ere, ez du jarraian biltzen den mugako balioa gaindituko:

- a) 2.1 oinarrian adierazitako udalerriak eta gainerako onuradunak, oso-osorik udalerri bakar baten partaidetza badute:

Udalerriko biztanle kopurua	Onuradun bakoitzeko gehieneko kopurua (euro)
1.000tik behera	15.000
1.000, edo 1.000 baino gehiago eta 5.000 baino gutxiago	45.000
5.000, edo 5.000 baino gehiago eta 20.000 baino gutxiago	75.000
20.000, edo 20.000 baino gehiago eta 50.000 baino gutxiago	110.000
50.000, edo 50.000 baino gehiago eta 100.000 baino gutxiago	145.000
100.000 edo hortik gora	200.000

- b) Udalaz gaindiko toki-erakundeentzat, eta, 2.1 oinarrian jasota egonik, udalerri baten baino gehiagoren partaidetza duten gainerako onuradunentzat, erakunde eskatzailean parte hartzen duten udalerri guztien biztanle kopuruen batura hartuko da kontuan, pertsona onuradun bakoitzeko gehieneko laguntzaren zenbatekoa ezartzeko.
- c) Udalaz azpiko toki-erakundeen kasuan, entitate eskatzailea kide den udalerriko biztanle-kopurua hartuko da kontuan, eta onuradun bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurreko taulan jasotako zenbatekoen % 40 izango da.

Udalerri bakoitzeko biztanle kopurua zenbatzeko, Eustaten webgunean argitaratutako azken informazioa hartuko da kontuan.

II. ERANSKINA

Dokumentazioa

Eranskin honetan zerrendatutako dokumentazioaren xedea da, laguntza-eskaeraren eraginpeko jarduketari dagokion laguntza-programan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

All.A – Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa.

All.A1– Laguntza-eskaera egiteko eskatutako administrazio-dokumentazioa.

a) Eskatzailearen eta haren lege-ordez kariaren IFZaren/AIZaren kopia.

Eskaera lege-ordez kari baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du. Eskaera sinatzen duenaren (lege-ordez karia) NAN/ANZaren kopia ere aurkeztuko da.

Eskaera ordez kari baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du eta ordez karitza emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitzaio. Eskaeraren sinatzailearen (ordez karia) NANaren kopia ere aurkeztu beharko da.

b) Eskatzaileak edo haren lege-ordez kariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, formulario telematikoa dagoena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren eskatzaileari dagokionez:

- ☐ Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
- ☐ Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- ☐ Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak berariaz ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- ☐ Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatuta eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen duela (hau da, ez duela gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).

- Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozgarrietako batean ez dela erori.
- Jarduera ekonomikoren bat egiten badu, EBk hartutako erabaki bidez zigortuta ez dagoela, ez eta aurretik eman zaien ezein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende ez dagoela, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituak dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituelako.
- Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
 - estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
 - estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
 - Iruzzurraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.
- c) Indarreko araudiaren arabera indarreko berdintasun-plan bat eduki behar duten enpresentzat, plan horren kopia bat. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatiko jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.
- d) Eskatzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea onuradun bihurtutakoan.
- e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten zuzenbide publikoko erakundeez besteko pertsona juridikoak badira eskatzaileak (hemendik aurrera, «3/2004 Legea»), aipatutako Legean onuradun izateko finkatutako ordainketa-epeak bete beharko dituzte. Ezarritako betetze-maila honako frogabide hauen bidez egiaztatuko da:

i.- Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona juridikoei:

- Entitateak galdu-irabazien kontu laburtuak aurkezteko kontabilitate-araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - Eskuragarri dagoen azken urterokoaren balantze onartua.
 - Azken urteko galdu-irabazien kontu laburtua, dagokion erregistroan inskribatua, edo, errekerimendu-epea bukatutakoan inskribatuta ez badaude, onartuta daudenak.
 - Altan dauden langileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egina, erakundearen kotizazio-kodeei buruzkoa, aurrez adierazitako dokumentazioari dagokion urtekoari dagokiona.
- Administrazio-organoak edo ordezkaritza-ahalmen nahikoa duen organo baliokideak sinatutako ziurtagiria, 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen direla adierazten duena. Egoera hori egiaztatu ahal izango dute, halaber, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei buruzko atalean aurreikusitako frogabideen bidez (DLOaren 13.3.bis artikulua b) letra).

ii) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei:

- ii.a) ROACen inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako urteko azken kontuen memorian deskribatzen den ordainketen arloko informazioaren transkripzio xehatua jasotzen duena, kontu horietatik ondorioztatzen bada 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak betetzen direla, 3/2024 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatutako informazioan oinarrituta. Ziurtagiri horrek hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte balioko du.
- ii.b) Aurreko zenbakian aipatzen den «Hitzartutako Prozeduren Txostena» ezin bada jaulki, ROACen inskribatutako auditore batek egina, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke

dauden fakturen lagin adierazgarri bat berrikustean oinarrituta, 3/2004 Legearen ordainketa-epeak betetzeko salbuespenik hauteman gabe amaitzen bada, edo, horrelakorik hautemanez gero, bete beharreko betetze-maila lortzea eragozten ez badute, enpresa sortu eta hazteari buruzko 18/2022 Legearen (hemendik aurrera, «18/2022 Legea») azken xedapenetako seigarrenaren d) letran, bigarren idatz-zatian, xedatutako ehunekoan.

DLOaren ondorioetarako, atal honetan eskatutako baldintza betetzat joko da 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) idatz-zatiaren bigarren paragrafoan aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

AII.A2.– Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazio tekniko-ekonomikoa.

- a) Hainbat hornitzailei eskatutako eskaintzen multzoa. Gogorarazten da 5.3 oinarriaren arabera eta gastu subentzionagarriaren kopuruaren arabera, gutxienez hiru (3) eskaintza behar direla, onartutako proposamena haien artean. Era berean, 5.3 oinarriarekin bat etorriz, justifikazio-txostena, esleitutako eskaintza efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatu ez bada eta ekonomikoki onuragarriena den proposamenari egokitu ez bazaio.
- b) Jarduketak egikaritutako dituen enpresaren edo enpresen aurrekontua. Behar bezala xehakatuta egon beharko du, jarduketa subentzionagarriaren partida ekonomiko esanguratsuak bereiztea ahalbidetzeko. Datak 4.3 oinarrian aipatutakoaren ondorengoa izan beharko du.

Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko eskatzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak edo dagokion kontratatzailearen profileko lizitazio-iragarkiak ordeztu ahaliko du adierazitako dokumentazio hori.

- c) Memoria deskribatzaile tekniko-ekonomikoa, laguntza zein jarduketa-motatarako eskatzen den zehatz-mehatz adierazita, eta I. eranskinean jarduketa-mota bakoitzerako zehaztutako orientazio tekniko xehatuaren arabera.

AII.B – Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa.

AII.B1 – AII.A1 – Laguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazio administratiboa.

- a) Onuradunak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren onuradunari dagokionez:
 - ☐ Ez dagoela DLOaren 13.2, 13.3 eta 13.3 bis artikuluetan aurreikusitako egoeretakoren batean.
 - ☐ Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
 - ☐ Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.ean xedatutakoari dagokionez.

- Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatuta eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen duela (hau da, ez duela gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).
- Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozgarrietako batean ez dela erori.
- Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki bidez zigortuta ez dagoela, ez eta aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende ez dagoela, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituelako.
- Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
 - Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
 - Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
 - Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.

All.B1 – Laguntza justifikatzeko eskatutako dokumentazio tekniko-administratiboa.

- a) Onuradunaren eta enpresa kontratistaren artean idatziz formalizatutako kontratua/k, partida ekonomikoak xehatuta eta banakatuta aurkeztu beharko direlarik. Erantsitako partida ekonomikoak dauzkan kontraturik ez da onartuko, baldin eta partida horiek galarazten badute azterlanaren garrantzizko partida ekonomikoak bereiztea.
- b) Egindako azterlan edo auditoriak justifikatzen dituzten fakturak (kopia kautoak). Faktura horiek onuradunari egin behar zaizkio, 2.1 oinarrian adierazi den bezala, eta, behar bezala banakatuak, ekonomikoki partidaka baloratuak, eta 4. oinarrian adierazitako epeen arabera datatuak izan behar dute. 4. oinarrian bildutako jarduketa guztiak argi eta bereiz identifikatu beharko dira.

- c) Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: laguntzaren onuraduna, ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta laguntzako jarduketa identifikatzeko beharrezkoak diren datuak.
- d) Laguntza-eskaera eskatu den pertsonentzako azterlan edota auditoria-motaren azken txostenaren benetako kopia. Horren harira, azterlanaren irismena (azterlanean aurreikusitako jarduera espezifikoak) eta l. eranskineko jarduketa-mota bakoitzerako adierazitako irizpide bereziak errespetatu behar dira.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeke beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.